



Arartekoaren 2021R-778-21 Ebazpena, 2021eko irailaren 30ekoa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari gomendatzen zaio berriaz ebatz dezala basurde-ehizako uxaldietarako kuadrillak sailkatzeko irizpideak aldatzeko eskaera.

Aurrekariak

- Pertsona bat, (...) Ehiza Klubeko (hemendik aurrera Kluba) presidentea den aldetik, Arartekoaren aurrean kexatu zen Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak ez zuelako erantzunik eman basurde-uxaldiko eremuak esleitzeko irizpidea aldatzeko eskaera bati. Irizpide horrek Bizkaiko eta Bizkaikoak ez diren ehiza-kuadrillen arteko bereizketa egiten du ehiza-denboraldian (2019/2020), Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren uztailaren 19ko 3540/2019 Foru Arauaren bidez araututakoaren arabera.

- 2020ko ekainaren 4an, Klubak eskaera bat aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailean, 3690/2019 Agindua aldatzeko, kuadrilla bizkaitarra zela egiaztatzeko eskatzen ziren baldintzei dagokienez, indarrean zegoen araudiak kalte egiten baitzion kirol-klub horri. Aldi berean, Bizkaiko ehiza-federazioak Bizkaiko Lurralde Historikoan ehiza egiteko kobratzen zituen kalteengatiko erantzukizun zibileko aseguruia kudeatzea proposatu zuen.

Bere eskaeran azaldu zuenez, (...) Klubak, Turtziozko zainpeko ehiza-eremuaren kudeaketaren esleipendunak, ehiztari-kuadrilla bat zuen, 2018/2019 denboraldira arte Bizkaiko lurraldean basurde-uxaldien modalitatean aktiboki parte hartu zuena.

Ordura arte, (...)ko Klubaren kuadrillak Bizkaiko kuadrilla kategoria zuen; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako debekualdi-aginduek parekatu egiten zuten Bizkaian kontrolatutako ehiza-eremu bat kudeatzen zuen sozietate baten bazkide-izaera eta Bizkaiko egoiliar-izaera.

Hala ere, ehizari buruzko 2019-2020 denboraldiko 3690/2019 Aginduaren arauketa berriaren ondoren, klubak kuadrilla bizkaitarraren izaera galdu zuen.

Idazkian, zalantzan jartzen zuen kuadrilla bizkaitarra izateko betekizuna, 3690/2019 Aginduaren 2.3 a) artikuluan aurreikusitakoa, kuadrillako kideen ehuneko 85ek edo gehiagok Bizkaiko udalerrietan izan behar baitzuten egoitza. Bizkaitar izaera hori NANaren bizilekuak ematen zuen, eta ehiza-eremu





kontrolatuetan baino ez zen salbuesten, bazkide-izaera bizkaitar-izaerarekin parekatzen baitzen. Araudi berriak ñabardura bat sartu zuen salbuespenean: *"Baldin eta adjudikaziodunak diren zainpeko ehiza-eremutik kanpo ehiza-orbanik edo ehiza-kuartelik aukeratzen ez badute"*.

Azken paragrafo horrekin, klubak alegatu zuen bere kuadrillak bizkaitar izateko aukera galdu zuela, Bizkaiko gainerako ehiza-lurraldeari dagokionez; izan ere, kuadrillako kide batzuk (...)en ondoko udalerrietan bizi ziren, beste autonomia-erkidego batekoak, eta ez ziren iristen Bizkaian bizi ziren ehiztarien ehuneko 85era.

Beste alde batetik, kexagileak aipatu zuen basurdearen eraginez nekazaritzan kalteak izateko aseguru bat eskatu zela, espezie horretako ehiza-uxaldietan parte hartzen duten ehiztariak ordaintzen zutena. Idazkian adierazi zuen ez zeudela ados Bizkaiko Ehiza Federazioak kobratutako gehiegizko zenbatekoekin, haien ustetan, ez baitzen egokitzen 3540/2019 Foru Aginduan ezarritakora. Halaber, adierazi zuen 2020/2021 ehiza-denboraldian Bizkaiko Ehiza Federazioak ez zuela erantzukizun zibileko asegururik izan nekazaritzan eragindako kalteengatik.

- 2020ko urriaren 10ean, kexagileak beste idatzi bat bidali zuen Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailera. Idatzi horren bitartez, 2020ko ekainaren 4ko idatziarekin lotuta hasitako espedientea eskuratzeko eskatu zuen; eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari eskatu zion aipatutako espedienteari buruzko berriazko ebazpen bat emateko. Idazki horretan uztailaren 30eko 2930/2020 Foru Agindua aipatzen zen, 2020/2021 ehiza-denboraldian ehizan aritzea arautzen zuena eta 2019/2020 denboraldirako zalantzan jarritako irizpideari eusten ziona.

Informazio-eskaerari erantzunez, Klubak jakinarazi zuen Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak espedientea bidali ziola, zeinean Ehiza Fauna eta Arrantza Zerbitzuko buruaren 2020ko ekainaren 26ko txosten bat aipatzen baitzen. Bere balorazioaren arabera, txostenak ondorioztatzen zuenez, bizkaitar izaerari dagokionez basurde-kuadrillen kalifikazioa aldatzeko justifikazio sendo eta oinarriturik ez zegoenez, bizkaitar izaera mantentzea proposatzen zien ehiza kontrolatuko eremuen esleipendun ziren elkarte edo klubekin lotutako kuadrilla guztiei.

Azken batean, Klub kexagileak Arartekora jo zuen adierazteko ordura arte ez zuela jaso Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren erantzunik, eta, beraz, berriro adierazi zuen ez zegoela ados ehiza-kuadrillen gaineko indarreko





araudiarekin, uste baitzuen diskriminatzailea izan zitekeela Klub horretako kuadrillako ehiztarientzat, bai eta kalteengatiko erantzukizun-aseguruaren kudeaketarekin ere.

- 2021eko maiatzaren 6an, Arartekoak informazioa eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari, kexagileak egindako eskaerei emandako izapideari buruz, hain zuzen ere, Bizkaiko Lurralde Historikoan kontrolatutako ehiza-eremu bat kudeatzen duen klub bati lotutako basurde-ehizako kuadrillen bizkaitar-izaerari buruz eta basurdeak eragindako kalteengatiko erantzukizun zibileko aseguru-poliza ordaintzeari buruz.

- 2021eko ekainaren 8an, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak txosten bat bidali zion Arartekoari. Txosten horretan, jarraitutako jardueren berri eman zuen, eta horien edukia (...) Ehiza Kirol Klubera eta Bizkaiko Ehiza Federaziora bidali zen.

Bizkaiko kuadrillak zehazteari buruzko irizpidearen aldaketari dagokionez, txostenak honako hau dio:

"Con fecha 4 de junio de 2020 el Presidente del Club Deportivo de Caza (...) remitió un escrito a la Diputada Foral del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia en el que solicitaba, entre otras cuestiones, "que la orden foral que regule la actividad cinegética del Territorio Histórico de Bizkaia en la temporada 2020/2021, adopte el criterio de la orden foral de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural 3690/2018, de 18 de julio, por la que se regula la práctica de la caza en el Territorio Histórico de Bizkaia durante la temporada cinegética 2018/2019, en el sentido de que aquellas sociedades gestoras de las zonas de caza controlada, tengan la consideración de cuadrillas vizcaínas".

En la reunión con la Federación Territorial Vizcaína de Caza de fecha 30 de junio de 2020 relacionada con la orden foral reguladora de la temporada cinegética 2020- 2021, se les trasladó la recepción por parte de la Subdirección de Gestión de Espacios Naturales y Servicios Generales de un escrito del Club Deportivo de Caza (...) en el que solicitaba volver a la redacción anterior de la orden foral reguladora de la práctica de la caza en el Territorio Histórico de Bizkaia en lo relativo a la cuestión de que aquellas cuadrillas vinculadas a sociedades gestoras de las zonas de caza controladas tengan la consideración de cuadrillas vizcaínas.





Preguntada la Federación Territorial Vizcaína de Caza sobre su posicionamiento al respecto trasladó lo siguiente:

1.- Que dicha Federación ostentaba la mayoría de la representación de las cuadrillas de caza de jabalí y de los/las cazadores/as que practican dicha modalidad cinegética.

2.- Que se mostraban en contra de modificar la redacción de la orden foral y volver a la anterior, entendiéndose que se debe cumplir en todo caso el requisito del 85% para la consideración de una cuadrilla como vizcaína.

En el Consejo territorial de Caza, reunido el 2 de julio de 2020, se solicitó por parte de la Federación Territorial Vizcaína de Caza que conste en acta su posición al respecto.

Consecuencia de todo lo anterior, la Orden Foral 2930/2020, de 30 de julio, de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, por la que se regula la práctica de la caza en el Territorio Histórico de Bizkaia durante la temporada cinegética 2020/2021, mantuvo el criterio del ejercicio precedente en lo relativo a la clasificación de las cuadrillas".

Por otro lado, respecto a la gestión del seguro de responsabilidad por daños, el informe considera lo siguiente:

"Por lo que respecta a las cuantías que la Federación Territorial Vizcaína de Caza ha cobrado a los integrantes de las cuadrillas de caza de jabalí; dicha Federación ha venido estableciendo en los últimos años dichos importes, en virtud de la colaboración en la gestión de daños del jabalí que se ha mantenido desde la Diputación Foral de Bizkaia con la misma.

No obstante, en la gestión de los daños del jabalí en el medio agrario, y en concreto en las cuotas a satisfacer por parte de los/la cazadores/as, no ha existido un instrumento regulador entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Federación Territorial Vizcaína de Caza para la fijación de las mismas, estableciéndose dichas cuotas por acuerdo de la Junta Directiva de dicha Federación.

Tal como se ponía de manifiesto en el escrito dirigido por la Diputación Foral de Bizkaia a la Federación Territorial Vizcaína de Caza de fecha 26 de agosto de



2020, a finales del mes de junio se recibieron escritos por parte de varias cuadrillas (6) que desarrollaban su actividad cinegética en el territorio de Bizkaia en los que se trasladan los siguientes aspectos:

- *La disconformidad de las respectivas cuadrillas con respecto a la propuesta económica realizada por la Federación Bizkaína de Caza relativa al pago individual por cazador/a de la cuota anual por daños de los jabalíes a explotaciones agrarias y ganaderas.*
- *La consideración de que las cuotas establecidas dependiendo de si el/la cazador/a es vizcaíno/a, federado/a y sus variaciones, además de ser discriminatoria, supera en un 50% la cuota de la pasada temporada de caza, sin criterio alguno ni ser consensuadas con las cuadrillas.*
- *Se solicita, así mismo, el aplazamiento en el pago de la citada tasa mientras no sea consensuada.*

A su vez, se recordaba en dicho escrito que, en la reunión con la Federación Territorial Vizcaína de Caza, de fecha 30 de junio de 2020, se trasladó a los representantes de la misma la recepción de los escritos aludidos anteriormente por parte de la Diputación Foral de Bizkaia y la preocupación por la situación que se estaba generando.

El 28 de agosto de 2020 la Federación Territorial Vizcaína de Caza informó que los criterios de aplicación de las cuotas se decidieron siguiendo las recomendaciones de los representantes de las cuadrillas de jabalí del territorio, que a su vez consultaron con las propias cuadrillas.

Según trasladaron en su escrito, entendían necesaria una discriminación positiva a las cuadrillas de jabalí "bizkainas" por diferentes razones, entre ellas, la imposibilidad de que las cuadrillas "bizkainas" puedan ejercer la actividad cinegética relacionada con el jabalí en los territorios y comunidades limítrofes. Trasladaron también que el ejercicio de la actividad cinegética en otras comunidades tan solo se puede ejercitar a título individual y a unos costes muy superiores. Razones, todas ellas, que según su criterio, colocaban a el/la cazador/ra vizcaíno/a en una situación de discriminación.

También expusieron que "mientras que en Bizkaia puede cazar cualquier cazador o cuadrilla de cualquier zona de España (sin ningún límite) y los cazadores



vizcaínos que deseen pagar menos importe de daños del jabalí en el medio agrario (como los que integran las cuadrillas "bizkainas") pueden integrarse en cuadrillas de caza "bizkainas" que no llegan a los 50 miembros (esta temporada existen unas 300 plazas) o en su defecto formar una cuadrilla "Bizkaina" conforme a lo establecido en la Orden de Vedas".

En la actualidad se está trabajando en la Diputación Foral de Bizkaia en un nuevo modelo de gestión de los daños del jabalí en el medio agrario, el cual, en el supuesto de que se articule mediante una colaboración con la Federación Territorial Vizcaína de Caza, deberá contemplar un mecanismo de aprobación consensuado de dichas cuotas.

Por otra parte, se señala que durante la temporada cinegética 2020/2021, la "Federación de Caza de Bizkaia" no ha dispuesto de un seguro de responsabilidad civil por daños en la agricultura, con lo que en su opinión se estaría incumpliendo el contenido de la vigente Orden Foral 2930/2020, de 30 de julio, de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, por la que se regula la práctica de la caza en el Territorio Histórico de Bizkaia.

La Orden Foral 2930/2020, de 30 de julio, de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural establece que "una vez examinadas las solicitudes se tendrá en cuenta como criterio para adjudicar las autorizaciones, la contratación de un seguro de daños por jabalí a la agricultura por parte de las cuadrillas que participen en la caza de esta especie."

A este respecto cabe realizar varias consideraciones:

Históricamente las cuadrillas no han realizado ninguna contratación por si mismas de un seguro de daños del jabalí a la agricultura. La entidad tomadora del seguro ha sido la Federación Territorial Vizcaína de Caza, la cual ha financiado la correspondiente prima con las aportaciones de los/las cazadores/as.

En octubre de 2020 la Federación Territorial Vizcaína de Caza comunica que no ha renovado la póliza del seguro de daños del jabalí al medio agrario por las dificultades que estaban generando las nuevas condiciones (entre ellas, el límite por cada uno de los siniestros). Como contrapartida la Federación comunica la constitución de un Fondo de compensación de daños con una cuantía igual al límite de cobertura del seguro de daños (60.000 euros).





Los/las cazadores/as inscritos en las cuadrillas de caza de jabalí habían satisfecho las cuotas para sufragar los daños del jabalí en el medio agrario por los que se entendió que las adjudicaciones de manchas realizadas en el mes de julio de 2020 debían mantenerse.

En definitiva, no hay otro precepto en la orden Foral 2930/2020, de 30 de julio, que se refiera al seguro de daños del jabalí en el medio agrario y a su obligatoriedad. Parece claro que la redacción dada a este apartado de la Orden Foral no es nada afortunada en tanto que lo que parece querer decir es que para que las cuadrillas sean adjudicatarias de las manchas de caza los/las cazadores/as deberán hacer frente a los daños del jabalí en el medio agrario.

Por ello, parece lógico proceder a una redacción más clara de la futura Orden Foral reguladora de la temporada cinegética 2021- 2022".

- Ondoren, uztailaren 2ko 2627/2021 Foru Agindua aipatu behar da, 2021/2022 ehiza-denboraldian Bizkaiko Lurralde Historikoan ehizan aritzea arautu duena. Uztailaren 2ko 2627/2021 Foru Aginduaren 2.3 artikulua araberan, Bizkaiko kuadrilla bat Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren pertsonen ehuneko 85 edo gehiago dituen da. Era berean, ez du gai eztabaidagarria aldatu; izan ere, zainpeko ehiza-eremuen kasuan, elkarte bateko bazkide-izaera Bizkaiko bizilekuaren parekoa izango da, baldin eta ehiza-orbanik aukeratzen ez bada zainpeko ehiza-eremutik kanpo.

Bestalde, baimenak esleitzeko irizpide gisa mantentzen du kuadrillek basurdeak nekazaritzan eragindako kalteen konpentsazioan parte hartzea, basurdeen uxaldietan parte hartzen duten pertsonen jardueraren horren ehiza-aprobetxamendua lortzen baitute. Nolanahi ere, lehentasuna ezartzen zaie konpentsazioan parte hartzen duten kuadrilla guztiei, bizkaitarrak izan ala ez.

Erreklamazio hori ikusita, haren planteamendua eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak igorritako informazioa aztertu ondoren, Arartekoari egokia iruditu zaio honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Klub kexagileak egindako eskaerari dagokionez, adierazi behar da, oro har, herri-administrazioek, herritarrekiko harremanetan, jarraitu diren izapideen





trazabilitate egokia bermatu behar dutela, dagokion administrazio-prozeduraren bidez.

Administrazio-prozedura orokorrak administrazio-jarduera administrazio onaren irizpideen arabera antolatzeko, bideratzeko eta fiskalizatzeko kontuan hartu behar diren jarraibideak ezartzen ditu.

Herritarrek administrazio onerako duten eskubideak berekin dakar aurkezten diren idazkien hartu-agiria jasotzea administrazio publikoengandik, dagokion prozedurako ofiziozko bultzada egitea eta planteatutako kontu eta errekurtsio guztiei arrazoizko epean eta moduan erantzutea.

Zehazki, kexan azaldutakoaren antzeko kasuetan administrazio egokirako eskubidea konfiguratzeko balio duten administrazio printzipio batzuk aipatu behar dira:

- Koherentzia eta sustapen printzipioa. Eskariak, kexak edo baliabideak betetzeko ordenamendu juridikoan ad hoc prozedura ezarrita baldin badago, dagokion administrazio prozedura espezifikora bideratu beharko dira. Testuinguru horretan, administrazioa ahalegindu behar da administratuen borondatea bideratzen ordenamendu juridikoak berariaz finkatutako prozedura zehatzetara.

- Adostasun eta legezko konfiantza printzipioa. Bidezko konfiantzaren printzipioa aplikatuz, herri-administrazioek bat etorri behar dute beren administrazio-eskumenak baliatuz egindako eskaerekin. Printzipio horrek prozedurari amaiera ematen dioten ebazpenek interesdunek planteatutako auzi guztiei buruz erabaki behar izatea eragiten du. 39/2015 Legearen 88. 2 artikulua honako hau dio: *"Interesdunak eskatuta izapidetu diren prozeduretan, ebazpena bat etorriko da interesdun horrek egindako eskaerekin, ezingo da inolaz ere hasierako egoera larriagotu, administrazioak prozedura berria ofizioz hasteko, zilegi bada, duen ahalmenaren kaltetan izan gabe"*.

- Arrazionaltasun eta motibazio printzipioa. Aldi berean, administrazioaren erantzunean eskaria edo errekurtsioa onesteko edo ezesteko arrazoiak eman beharko dira. Eskaeraren ondorioz akordio edo ebazpen espezifikoa bat egon bada, neurri hori ere erantzunean jasoko da.

- Berrikuspen eta tutoretza judizial eraginkorreko printzipioa. Esan beharra dago udalaren erantzunak administrazio legerian administrazio ebazpenetarako eskatzen diren baldintzak bete behar dituela. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2





artikuluaren xedatutakoaren arabera, jakinarazpenean, ebazpenaren testu osoa jaso behar da, eta adierazi behar da administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zer errekurtsio jar daitezkeen, hala badagokio, administrazio-bidean eta auzibidean, zer organoren aurrean eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsio baliatzeko aukera.

Administrazio onaren printzipio horiek erreklamazioan azaldutako kasuetan ere aplikatu daitezke. Erreklamazio horretan, ehiza-klub batek ehizari buruzko foru-araudia aldatzeko proposamena egiten du, Bizkaiko lurralde historikoan zainpeko ehiza-eremuak kudeatzen dituzten elkarteak kuadrilla bizkaitartzat har daitezten.

Oraingo honetan, 2021eko ekainaren 2an, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Sustatzeko Sailak Klub kexagilearen eskaeraren balorazioa egin du.

Txosten horretan, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak adierazten du ezen, Bizkaiko Ehiza Federazioaren aldetik aldaketa-proposamenaren aurkako balorazioa jaso ondoren, 2020/2021 eta 2021/2022 ehiza-denboraldia arautzeko irizpideari eustea erabaki duela.

Adierazi behar da ezen, Foru Sailak Arartekoari txostena klub kexagileari eta Federazioari helarazi izanaren berri eman badio ere, ez duela jakinarazi Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko zerbitzu teknikoek egindako proposamenaren baloraziorik, eta, are garrantzitsuagoa dena, ez dela ageri eskaerari buruzko berriazko ebazpenik.

Horri dagokionez, komeni da gogoraraztea Sailak berriaz izapidetu eta ebatzi behar duela eskatutako gaia aldatzeko proposamena, aurreko kongruentzia-, arrazoitze- eta berrikuspen-printzipioetan adierazitako moduan.

Berriazko erantzuna eman beharko da, era berean Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusita dagoelarik, eskaera-eskubideari edukia eman behar zaiolako, erantzun zehatza jakin behar delako eta ebazpena errekurritzeko eskubidea dagoelako, errekurtsioa administrazio organoetan eta organo jurisdikzionaletan jarri ahalko delarik.

Era berean, aipatu behar da administrazioa saiatu behar dela kexagileari laguntzen, bere eskubideak erabil ditzan, kasu honetan, ehizari buruzko araudia aldatzeko egindako eskabideari dagokionez.



2. Klubak egindako proposamenaren inguruan jarraitu beharreko administrazio-prozedurari dagokionez, eskaera egiteko eskubidea aurreikusita dago Espainiako Konstituzioaren 29. artikuluan, eta araututa, eskaera-eskubidea arautzen duen azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoan.

Eskubide hori egikaritzean, herritarrek eta elkarteek eskaerak egin ditzakete administrazioaren eskumenekoak diren alorrei edo gaiei buruz. Eskarietan iradokizunak edo ekimenak proposatu daitezke edo interes orokorreko, kolektiboko edo partikularretako gaiei buruzko eskaerak egin ahal izango dira, hautazkoak edo doakoak badira, betiere, eskubide subjektibo batean edo gaitzeko aurretiazko arau batean oinarrituta ez baldin badaude.

Eskariak, kexak edo iradokizunak betetzeko ordenamendu juridikoan *ad hoc* prozedura ezarrita baldin badago, dagokion administrazio prozedura espezifikora bideratu beharko dira. Bestalde, 4/2001 Lege Organikoaren 11. artikuluan jasota dago eskaera bat izapidetzera onartu ondoren, eskumenak dituen agintaritzak edo organoak derrigorrez erantzuna eman beharko duela eta erantzuna jakinarazi beharko duela gehienez ere aurkezten denetik hiru hilabeteko epean. Era berean, beharrezkotzat jotzen badu, eskatzaileei entzunaldi berezia eman ahal izango die.

Eskaera oinarrituta dagoela ebazten denean, eskumenak dituen agintaritzak edo organoak jorratu egin beharko du eta guztiz eraginkor izateko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak ezarriko ditu. Administrazioaren erantzunean eskaera onesteko edo ezesteko arrazoiak eman beharko dira. Eskaeraren ondorioz akordio edo ebazpen espezifiko bat egon bada, neurri hori ere erantzunean jasoko da.

3. Bestalde, arauak aldatzeko edozein proposamen xedapen orokorrak egiteko aurreikuspenen arabera izapidetu behar da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako kontsulta-, informazio- eta parte-hartze publikoko izapideei dagokienez.

Kasu honetan, foru-sailari dagokio erregelamenduak egiteko ahala baliatzea, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz. Lege horrek ezartzen du lurralde historikoei dagokiela erakunde erkideek emandako arauak garatzea eta betearaztea, ehiza- eta ibai-aberastasun kontinentala aprobetxatzeko araubideari dagokionez.



Nolanahi ere, 39/2015 Legearen 128. artikulua ezartzen du administrazio-xedapenek bat etorri behar dutela legeek ezartzen duten hierarkia-printzipioarekin, zeinaren bidez ezein administrazio-xedapenek ezin baititu urratu goragoko mailako beste xedapen baten manuak.

Bestalde, 39/2015 Legearen 129. artikulua erregulazio onaren printzipioak ezartzen ditu, eta, horren arabera, erregelamenduak egiteko ahala erabiltzeak honako printzipio hauek errespetatu behar ditu: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Horrek esan nahi du hitzaurrean behar bezala justifikatu behar dela printzipio horietara egokitzen dela.

Premia- eta efikazia-printzipioen kasuan, araugintza-ekimena interes orokorreko arrazoi batek justifikatu behar du, lortu nahi diren helburuak argi eta garbi identifikatzean oinarritu behar du, eta helburu horiek lortzeko tresnarik egokiena izan behar du. Proportzionaltasun-printzipioaren arabera, proposatzen den ekimenak arauarekin bete beharreko premiari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa izan beharko du, eskubideak gutxiago murrizten dituen beste neurririk ez dagoela egiaztatu ondoren. Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatze aldera, araugintza-ekimena gainerako ordenamendu juridikoarekin, nazionalarekin eta Europar Batasunekoarekin koherente izanik gauzatuko da.

Nolanahi ere, printzipio horiek bete ondoren, erregelamenduak egiteko ahal hori baliatzeak diskrezionaltasun-tarte handia dakar administrazio-organo eskudunari hertsiki dagokion erregulazioaren egokitasun- edo komenigarritasun-irizpideei dagokienez.

Modu horretan, administrazioaren erabakiak arrazoitzeko betebeharra funtsezko bermea da administrazioaren jardun egokirako, erregelamenduak egiteko ahala erabiltzeak dakartzan berezitasunekin. Horretarako, Auzitegi Gorenak jurisprudentzia luzea ezarri du; ikus maiatzaren 12ko 2032/2021 azken epaia: *"una de las manifestaciones características de la discrecionalidad administrativa es, sin duda, la reglamentaria, en la que el titular de la potestad tiene una libertad de opción o de alternativas dentro de los márgenes que permite la norma que se desarrolla o ejecuta, pero, aun así, la motivación, por la que se hacen explícitas las razones de la ordenación, es garantía de la propia legalidad, ya que, incluso, la razonabilidad, al menos como marco o límite externo a la decisión administrativa válida, sirve de parámetro para el enjuiciamiento del Tribunal y puede justificar, en su caso, la anulación de la norma reglamentaria". Lo que no impide tomar en consideración las particularidades que la motivación presenta en relación con el*





ejercicio de la potestad reglamentaria, a las que alude la sentencia de 22 de junio de 2004, cuando señala que "el deber de motivación, que constituye una garantía del actuar administrativo, no tiene la misma plasmación jurídica en el procedimiento de elaboración de las disposiciones generales que en el procedimiento administrativo, al engarzarse en aquél caso en los presupuestos constitucionales sobre la justificación de la norma reglamentaria, por lo que cabe desestimar que se haya acreditado que la norma reglamentaria impugnada carezca de motivación o de razón suficiente para su adopción, o que sean insuficientes los estudios previos, o los informes preceptivos evacuados, que constituyen, según tiene declarado esta Sala del Tribunal Supremo, cánones válidos para enjuiciar la conformidad a Derecho de las disposiciones generales".

Laburbilduz, Klubaren proposamenaren balorazioak, non zalantzan jartzen baitu ehiza-eremuak kudeatzen dituzten ehiza-klubetako bazkideak bizkaitarrak bakarrik izatea ehiza-eremu kontrolatuetan ehiza-uxaldiak aukeratuz gero, araudi horrek indarrean dagoen ehiza-legerian jasotako aurreikuspenak betetzen dituela justifikatu eta arrazoitu beharra eskatuko luke. Era berean, araudi horrek ehiza-elkarteetako kideen eta ehiztari-kuadrillen artean justifikaziorik gabeko diskriminazio-traturik ez eragitea eskatuko luke, Bizkaiko Lurralde Historikoan edo beste autonomia-erkidego bateko beste udalerrri mugakide batzuetan bizi direlako.

4. Erreklamazioa aurkeztu duen klubak ehiza-kuadrillak bizkaitar gisa eta ez bizkaitar gisa saritzeari buruz aipatzen duen gaiari dagokionez, indarrean dagoen Euskal Herriko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak horri buruz jasotzen dituen aurreikuspenak aipatu behar dira.

Kasu honetan, Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 13. artikulua ehiza-lurren sailkapena zehazten du, ehizaren ondorioetarako, aprobetxamendu komuneko lursail, zainpeko ehiza-eremu edo ehiza-barruti gisa.

Kasu horretan, ehiza-baliabideen aprobetxamendua baliabideen plangintzaren arabera egin behar da. Ehiza-barrutietan eta zainpeko ehiza-eremuetan, ehiza antolatzeko plan teknikoen arabera egingo da, eta aprobetxamendu erkideko lurretan, debekualdiei buruzko foru-aginduetan xedatutakoaren arabera.

Horrela, Ehizari buruzko 2/2011 Legearen 31. artikulua ezartzen du debekualdien agindu orokorrek urtero ezarriko dituztela espezie bakoitzari aplikatu beharreko ehiza-mugak eta -aldiak.





Era berean, Legearen 21.4 artikulua adierazten du ehiza-lurren aprobetxamendua –babestutako naturagune batean sartutako jabari-mendiak edo titulartasun publikoko lurak barne hartuta– publizitatearen, objektibotasunaren, inpartzialtasunaren, gardentasunaren eta norgehiagokaren printzipioen arabera esleitu beharko dela.

Ehiza-barruti sozialen kasuan soilik, martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 18. artikulua aurrekusi du baimenen ehuneko 50 dagokien lurralde historikoan bizi diren pertsonentzat gordeko direla.

Hala ere, garatzeko erregelamendu-xedapenak onartzen ez diren bitartean, eta indarrean dagoen ehizari buruzko legedian xedatutakoaren aurka ez doan guztian, 2/2011 Legearen xedapen iragankorrak 1970eko Ehizari buruzko Legea betearazteko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 25eko 506/1971 Dekretua indarrean mantentzen du. Kasu horretan, Ehizari buruzko Araudiaren 9. artikulua ezartzen du aprobetxamendu erkideko ehiza-lurretan ehiza-jarduera araudian ezarritako muga orokorrez gain gauzatu ahal izango dela, aprobetxamendu erkideko eremu horietan ehiza-baimenak banatzerakoan lehentasunak, kupoak edo antzekoak aurrekusi gabe. Bestalde, 16. artikulua ezartzen duenez, ehiza-erregimen kontrolatuaren pean dauden lurretan, ehiza-kudeaketa ehiztari-elkarte laguntzaile batek egiten duenean, ehizan jarduteko baimenak bertako kideei bakarrik emango zaizkie, eta, aldezturik, ehuneko bat gordeko zaie ehiztari nazionaleri edo atzerriko egoiliarrei.

Kasu horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoak, elkarren segidako debekualdi-aginduen bidez, ehiza arautu du, eta basurde-uxaldietarako arauak ezarri ditu. Ehiza-kuadrilla batzuen bidez egiten dira uxaldi horiek, ehiza-eremu edo ehiza-orban jakin batzuetan. Ehiza-eremu horiek aprobetxamendu erkideko ehiza-lurretan daude mugatuta, eta kontrolatutako ehiza-eremuak barne hartzen dituzte. Horretarako, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak kuadrillen erregistro bat sortu du, Bizkaiko kuadrillak eta gainerako kuadrillak bereizten dituena.

Ondorengo aginduetan, Bizkaiko kuadrilla gisa definitu da Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren pertsonen ehuneko 85 baino gehiago dituen kuadrilla. Izaera hori NANean agertzen zen bizilekuak ematen zuen, kontrolatutako ehiza-eremuetan izan ezik, non bazkide izatea ehiztari bizkaitarraren pareko baitzen.

Hala ere, 2018/2019 ehiza-denboraldiaren ondorengo debekualdi-aginduek ezarri dutenez, zainpeko ehiza-eremuetan, elkartea kudeatzen duen elkarteko bazkidea





izatea Bizkaian duten bizilekuaren parekoa izango da, baldin eta sortu duten kuadrillak ez badu ehiza-orbanik aukeratzen zainpeko ehiza-eremutik kanpo.

5. 2018/2019 denboraldiaren ondorengo ehiza-aginduetan sartutako neurri eztabaidagarriaren justifikazioari eta proportzionaltasunari dagokienez, Kirol Klubak partzialki transkribatu du Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren Fauna Ehiza eta Arrantza Zerbitzuko buruaren txosten bat, 2020ko ekainaren 26koa, zeinak honako hau aipatzen baitu hitzez hitz: *"Lehen eskaera horri dagokionez, esan behar da, teknikari honen ustez, ez zela justifikazio sendo eta oinarridunik egon KEEren baten ehiza-aprobetxamenduaren sozietate esleipendunei lotutako basurde-kuadrillen kalifikazioa aldatzeko. (...) Hori dela eta, irizpide tekniko hobea alde batera utzi gabe, proposatzen da bizkaitar izaera mantentzea KEEren sozietate edo klub esleipendunekin lotutako kuadrillei".*

Gai horri dagokionez, komeni da Arartekoaren 2009ko azaroaren 27ko Ebazpena gogora ekartzea. Ebazpen horretan, Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunari gomendatu zion ezabatu zezala Bizkaiko eta Bizkaikoak ez diren kuadrillen arteko bereizketa ehiza-erregimen komuneko lurretan basurdea ehizatzean. Ebazpen horretan ondorioztatzen zen foru-sail eskudunak tratatu berezia ezarri zuela Bizkaiko kuadrillentzat eta Bizkaikoak ez ziren gainerako kuadrillentzat, eta ez zettorrela bat legezketasun-printzipioarekin; izan ere, ehiza-legegiak ez zuen inolako lehentasunik edo eskusibotasunik aurreikusi ehiza-aprobetxamendu komuneko eremuetan ehiztari jakin batzuentzat.

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, abenduaren 14ko 5946/2011 epaian, aztertu zuen berdintasun-printzipioaren balizko urraketa bat, Bizkaian bizi ez diren ehiztariak ehiza-araubide erkideko lurraldeetan diskriminatzeagatik, 3007/2010 Foru Agindua kasu zehatzean. Epai horrek errekurtsoa ezetsi eta Agindua berretsi zuen, izan ere: *"Ez da nahikoa berdintasun-printzipioaren aipamen orokor bat egitea, baizik eta eskubide horren urraketa alegatzen duenak konparazio-terminoa aurkeztu beharko du urraketa hori gertatu denarekin alderatuta. Errekurtsogileak ez du aipatzen baliozko konparazio-mugarik urraketa hori dagoela ulertzeko, eta, beraz, bertan behera geratzen da arrazoi hori".*

Bestalde, Santanderko Justizia Auzitegi Nagusiak, ekainaren 4ko 342/2010 epaian, erabaki zuen tokiko kuadrillek basurdeak ehizatzeko baimenak eskuratzeko lehentasuna arautzea ez datorrela bat Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan jasotako berdintasun-printzipioarekin. Kasu horretan, Kantabriako ehiza-legeria aztertzen denean, Auzitegiak honako hau erabaki zuen: *"Hartutako neurria (tokiko*





kuadrillei baimenen % 78 esleitzea eta baimenen % 72 eskuratzeko aukera ematea, eta horren ondoren, eskualdeko kuadrillei sarrera eman aurretik, beste % 6 kentzea ez da proportzionala tratu-bereizketaren xedearekin (tokiko ehiztariek hurbileko ingurunearekin dituzten loturak eta lotura afektibitateak ezagutzea) eta lortutako emaitzarekin (eskualdeko kuadrillek ehiza-lote eta -data jakin batzuetarako eta hautatu gabeko ehiza-egunetarako sarbidea murriztea)".

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari gomendatzen dio berriaz ebatz dezala (...) kirol-ehiza-klubak basurde-ehizako uxaldien araudia aldatzeko egindako eskaera, zainpeko ehiza-eremuak kudeatzen dituzten ehiza-klubetako bazkideei kasu guztietan bizkaitar izaten jarrai dezaten ahalbidetzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak modu arrazoituan ebatzi beharko du eskaera, premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioetan oinarrituta. Balorazio horrek kontuan hartu beharko ditu ehizari buruz indarrean dagoen legerian jasotako aurreikuspenak, eta bermatu beharko du ehiza-elkarteetako kideen eta ehiztari-kuadrillen artean justifikaziorik gabeko diskriminazio-traturik ez dela gertatzen, Bizkaiko Lurralde Historikoan edo beste autonomia-erkidego bateko beste udalerrri mugakide batzuetan bizi direlako.

